

Bileraren gai ordena:

1. Bizikleta elektrikoak
2. Herriko lorategiak.
3. Kotxeak eta aparkalekuak.
4. Banderak plazan.
5. Zabortegia.
6. Pellet erosketak.
7. Frontoiko sarea.
8. Larregiko terrenoa
9. Beko Kaleko urbanizazioa.
10. Hondakinak.
11. Enirio Aralarreko batzarra.

1. Bizikleta elektrikoak

Aurreko bileran erabaki zena konkreatu behar da (50 euroko bost dirulaguntza ateratzea EVEko deialdiarekin batera). Udaletxeko idazkariari galdetuko zaio papeleoa nola egin daiteken eta EVEren deialdia zehazki noiz ateratzen den.

2. Herriko lorategiak.

Lorategietako belarra moztu dute azkeneko egunetan udaletxeko langileek. Horrekin batera lorategiak pixkat itsusi daudela komentatu da eta horretaz gain belarra moztean zabor asko azaleratzen dela (belarra luzea dagoenean ikusten ez diren ontziak etab).

Belarra txukunago egoteko gehiagotan moztu behar dela komentatu da (adibidez bi hilean behien eta udaran gehiago). Beraz plan bat osatu beharra dago. Horretaz gain langileei esango zaie moztutako belarra jasotzeko eta bertan ez uzteko. Azaleratzen diren hondakinak ere jasotzeko esaktuko zaie. Zikinkeriarri dagokionez udal taldeari kanpaina informatibo bat abiarazteko proposatuko zaio, txakur kaka edo aparkalekuekin egin izan den bezala.

3. Kotxeak eta aparkalekuak

Berrito atera da gaia (herrian zehar leku desegokietan aparkatzen duten kotxe ugari daude). Duela hilabete batzuk egin zen kanpainaren ondoren leku batzuetan egoera hobetu dela ikusi da baina beste leku batzuetan berdintsu jarraitzen du. Komentatu da ertzaintzak bere burua eskaini izan duela multak jartzeko herrian (momentu honetan ez dauka eskumen hori). Beste aukera bat da aparkalekuen arazoa udal ordenantzen bidez erregulatzea (gaur egun ez dago). Aukera ezberdinak aztertuko dira eta hurrengo bileretan komentatuko dira.

Honekin batera herrian kotxe abandonatuen arazoa eztabaidatu da. Gai honetan ere arauen bat garatu beharko luke udalak.

4. Banderak plazan

Herritar talde batek plazan ikurrina eta nafarroko banderak jartzeko baimena eskatu behar duela esplikatatu da.

5. Zaborteia

Zubiñerrek dagoen hiri-hondakinen zabortegiko azterketa egingo du lhobetik, Eusko Jaurlaritzak osoki ordainduta. Horretarako, enpresa bat kontratatuko dute eta lehendabiziko lana artxiboak (espedienteak) aztertzea izango da, bai Itsasondan bai Ordizian (sailaren jabe direnez), historian zehar izan dituen komeriak ahalik eta zehatzen jasotzeko. Asmoa da historiko hori bukatu bezain pronto, makinak sartu eta sondeo batzuk egiten hastea, sarrerako eta irteerako uren kalitatea kontrolatuko duten piezometroak jarritz. Eta, aldamenean dagoenez, antzeko zerbait egingo litzeke garai bateko meategiko pila handian, honen egonkortze eta tankatze prozesua martxan jartzeko asmoz. Dena dela, jabe partikularra duenez, oraingoz ezingo da besterik egin.

6. Pellet erosketa

Herrian pellet berogailuak erabiltzen dituztenentzat erosketa kolektiboa egiteko proposamena egin da. Adibidez aldizkarian publikatu daiteke. Udaletxeak lekua utzi dezake erositako pellet hori gordetzeko, baina epe mugatu batez.

7. Frontoiko sarea

Ez da gehiegi aurreratu kontu honekin. Sarea aukeratuta zegoen beraz orain material hori eskatuko da.

8. Larregiko terrenoa

Gainetik komentatu dugu berriro. Ez dugu pausorik eman, gai konplexua da.

9. Beko kaleko urbanizazioa

Aldundiko Peio Gaskonekin hitz egin da. Iralean partehartze prozesu bat egin daiteke bizilagunei 3-4 aukera eskainiz. Aurrera dihoa gai hau.

10. Hondakinen inguruko batzarra.

Proposatu da herri batzar bat egitea hondakinen gaia lantzeko. Seguraski maiatzean egingo da. Helburua: Egungo bileketaren datuak eta gorabeherak komentatu eta defizit-a txikitzeko proposamenak aztertu eta onartu.

11. Enirio Aralarreko batzarra

Apirilak 8an Enirio Aralarreko mankomunitatearen batzarra egingo da. Itsasondotik zinegotzi berria izango den Iñaki Aizpuru joango da nahiz eta Junta

Electoralaren azken onarpenaren zain gauden (pentsatzen dugu laister iritsiko dela).